

# ≡ JAZORIKUA ≡

¿Eztozube entzun ene irakurliak lengo egunian geure erijan jazo dana?

Emengo langile batzuk, biraña lagata olatik urten, eta euren etxeetara eldu baño lenago, ardantegira sartu ziran, alkafezag ardao pizkat edateko asmuz. An geure elz beriketari inardubela, oidan lez atzeritar bat sartu zan, eta jakina, ezeutson ondo eritxi euzkeraz egitiari, ez, ba, abo gustijentzako egiñikua ez-tija bera be ez da-ta, ta eurakana juanda esan eutsen, bere auzian ez erabilteko basatijen (salvajien) izkerarik.

Geuriak be mutuak eziran ta, adoretzu ta gixa-lagiz aldeztu eben erabilen euzkera edera.

Lenengo urten zan atzeritara makaldutera yoyala ikusifa, beste euretar batzuk lagundu yakozan, alpefik, baña, euzkeldunen alde urten ebenak geyago ixan ziran-eta.

Azkenerako sortu zan sortu biar zana; ¡burukia, gudia! ¡An ixan ziran galopadak, afapaladak!... ¡Zer ixan zan ango apatxotsa "Agefe,"tik auferal!...

Auxe da jazo zana. ¿Zer deritxazube?

Tamalgaraija ta lotsagaraija dala difue batzuk, nik baña besterik diñok, burukaldi ori, euzkeldun orontzat dala onuratsu-onuratsuba.

¡Zer ba!... ¿Gura daben gustija esaten itxi? ¡Ez olakorik, aldeztutia azke dagon arte beintzat! Onelako eztabaidatxubak egunoro biar litzakez, zaurijan ukutuagaz, zauriduna bizkortu egiñen da-ta. Dakusginez ba, geure-geuria dogun euzkel-ele edera aldeztuteko, nok zirikatatu biar dogu, ta egunoro zirikatatu

ezkero ba, euzkeldun odola bixi-bixi eginda, bere-beriak diran gauzak aldeztuten asiko litzake.

Aitatu dodan jazokuna baño kaltegarijago dan gauzarik ba'da euzkeriarentzat; erderarako umien artian sortu oi-dogun zaletasuna, euzkeria iñorako be gauza ez dan izkuntzia dala zinuistu-erazota. "¡Erderia apañagoa dala!..." "¡Jango dan ogija irabaziko bada, erderia biar-biafekua dala!..." "¿Eta euzkera ren arerijuak diñoazan tentelkeri oneikailik, iñten itxiko ete-dautsogu, ba geure-geurea dan ele maiñari? Arpegi itxusija daun notin batek, beste batzuk baño itxusijago dalako beste ziyo barik, bere burua baño beste galantagoa deritxonarena maiñago dabela jakin-go ba'gendu ¿zer esango genduke? ¡Zoratuta daguala!... Euzkerea itxusija dala ta beste geuria ez dan izkera bat maiñago daun euzkeldunatzaz be beste ain beste esan geinke; ¡zoro-zoro bat dala!...

Euzkerea geuria da, Jaungoikua'k geuri emon dakua da euzkerea. Beraz galzorijetan, aldeztu egin biar dogu, lentxuago aitatu dodazan euzkotar adoretsubak aldeztu eben eran; eta maiñatu, zifnez baña maiñatu be, ez beste ele batzuk baño edefago dalako, geure-geuria dalako baño.

¿Erderia "urētxiñdoñ"-abestija baizen txukun-goxo-polifa dala, eta euzkerea, negute gogoñetan Anboto ko atxetatik eta, beko ibaretara jasten diran bela-abesti gañatz-itxuxijaren antzekua?... Ezta ardura itxusijagua ba'litzake be; ¡maiñe ixan daigun euzkerea, geure-geuria da-ta!

UTAÑSUS.

Lemona'tik, 1930'ko urtarifa'n.

## AIZPIJUÑA-SUMARIO

Actividades "Pizkundia". "Oldargi".

Cuadros y Estampas Vascas.

Programa:

Precios de las localidades.

Oztin (Azul).

Siaska onduan (Canción de cuna).

Jon Deuneko gaban.

Itxaroixaña.

Kaxaenka.

Aquel Bilbao de nuestros padres...

Oldargi. A. DE O.

Euskaltzaindia dala-ta.—ZINKUNEGI'TAR JOSEBA.

Fantasias literarias. Amanecer... (Paisaje vasco).—

ANDIMA DE ORUETA.

Kaxaenka.—KUSKUÑUNPIN.

Eduña Bilbao'n.—GARBI-NAL.

Tal como viene. Ante la unión de los nacionalistas vascos.—UN GRUPO DE MENDIGOIXALEZ.

Joseba Deuna.—MIBISUS.

Ez aitzu Karmel'go Amagaz.—ZIDOÑA.

Nota euzkeralógica. "Aire" IV (continuación).—AÑATIA

ETA AGEÑE TAR JON MIKEL.

Jazorikua.—UTAÑSUS.